

Berriketan



**Maiatzaren 30ean
ekingo diote Antzerki Asteari**



ARENA BAR

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Halal harategia
Fruta-denda / Supermerkatua

Razan



943 574 710 / 688 749 337
Sokagin, 2 behe. DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behe. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Iturkale 2 behe - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi
pentsioa



Tel.: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

k
kutxabank



Hondartza ondoan
Urte guzian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

Odontologoa
MAITENA ARRIZABALAGA

Odontologoa
NORA UNZETABARRENETXEA

HORTZ KLINIKA

mm

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz

943 830 424 - 653 921 712



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com

Tel: 685 703 843



AURKIBIDEA



BERRIKETAN 306

2025eko maiatza

Azaleko irudiaren egilea:
Kamikaz Kolektiboa



10 ARGAZKI GALERIA
Aurtengo Debarren
Egunak lagatako
irudiekin osatutako
bilduma ikusgai



14 EUSKARALDIA
Euskararen erabilera
"erdigunean" jarri du
beste behin ere
Euskaraldiak



16 ANTZERKI ASTEA
Maiatzaren 30ean
hasi eta ekainaren 8an
amaituko da Debako
38. Antzerki Astea



21 ELKARRIZKETA
Maialen Gaztañaga
bost urtez Ficobako
azoka eta kongresuen
zuzendari lanetan



24 ERREPORTAJEA
"Trantsizio berderako
bide grisa: 1,9 milioi
ibilgailu Hego Euskal
Herrian" (Saretzen)



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo
diren jarduerak eta
ekimenak jaso ditugu
atal honetan

Jarrai gaitzazu!



berriketan.eus



LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatzeta Euskara Elkarte

HELBIDEA

Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@berriketan.eus

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatzeta.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/2009

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@berriketan.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Aurten ez dugu Gure Giro programazioa antolatuko

Kultur Elkartearen ekimenez eta herriko hainbat eragile-ekin elkarlanean sortu genuen Gure Giro programazioa duela 4 urte. Udako kultur eskaintza arlo ezberdineko kalitatezko ekimenez aberasteko helburuari tiraka, azken urteotan hamarnaka jarduera antolatu dira Gure Giron, hala nola Jazzez Blai jaialdia, hitzaldiak, irteera gidatuak, tailerrak, umeentzako ekimenak eta bestelako hainbat hitzordu. Iazko edizioan, adibidez, 27 kultur jarduera egin ziren uztailaren eta 4.500 ikusle eta parte hartzaile baino gehiago bildu ziren ekitaldietan.

Herriarregandik jasotako babesa ikusita, egitasmoaren edizio berri bat antolatzeko lanean hasi ginen beste behin ere. Horiek horrela, 2024. urte amaieran bilera bat egin genuen udalarekin, gure aurtengo dinamika zein izango zen azaltzeko. Gure aldetik, Gure Giro programazioa aurrera ateratzeko ezinbestekotzat jotzen genuen udaletik jasotzen dugun dirulaguntzaren zenbatekoa urte hasieratik zehaztuta izatea —garrantzitsua da gogora ekartzea iaz ekainaren 21ean jaso genuela laguntza honen ebazpena, egitaraua hasi baino bost egun lehenago—. Izan ere, argi dago funtzionatzeko modu honek asko zailtzen duela horrelako egitasmo baten atzean dauden lanak ganoraz egin ahal izatea. Hala ere, udalak ez zuen gure eskaria onartu. Hortaz, dirulaguntza deialdia ateratzeko zain geratu ginen, aurrez inolako erabakirik hartu gabe.

Hilabeteak pasa dira eta udalak ez du aurtengo dirulaguntzen deialdi publikorik egin maiatzera arte. Aste batzuk lehenago, apirilaren 5ean, Kultur Elkarteko zuzendaritzak bazkideen urteko batzar orokorrera eraman zuen gaia eta, horrelako egitasmo bat ganoraz antolatu ahal izateko gutxieneko baldintzak betetzen ez direla ikusita, aurten elkarateak Gure Giro programazioa ez antolatzearabaki du.

Debako Kultur Elkartea

Arimen Gaua prestatzen hasteko bilera irekia

Azken urte hauetan, urriaren 31ren bueltan, Deban Halloween delakoa ospea hartzen ari zela ikusita eta inguruko beste herri batzuetan, ordea, urteko sasoi horretan (data edo egun berean) bestelako ospakizunak egiten hasiak zirela jakinda, gure inguruko herrietan zehazki zer egin eta ospatzen duten jakiteko informazio bila hasi ginen.

Horrela jakin genuen Euskal Herriko hainbat lekutan ospatzen dituzten jai "berri" horien jatorria gure arbasoen ohitura zahar eta ospakizunetan dagoela. Alegia, Euskal Herrian badugula Halloween baino askoz ere zaharagoa den ospakizun bat eta gure arbasoek Gau Beltza edo Arimen Gaua deitzen ziotela. Gainera, jakin badakigu azken urteetan Euskal Herriko hainbat herritan Arimen Gauren ospakizuna gaurkotzen eta egokitzen ari direla.

Horiek horrela, pentsatu genuen Deban ere ospakizun horren inguruan zerbait egitea gustatuko litzaikeela; euskaratik eta euskaraz, herritik sortua eta herriarentzat. Eta iaz ospatu genuen Arimen Gaua lehenbizikoz bertan. Herriko norbanako eta eragile ugariaren artean askotariko jardueraz beteriko egitaraua antolatu genuen; urriaren erdialdean hasi eta hilaren 31n bukatu zen egitarau oparoa, hain zuzen ere.

Gure ustez, harrera beroa izan zuen elkarlanean, herrian eta herriarentzat antolatu genuen egitarau zabalak eta pozik gaude gure lanak emandako fruituarekin. Aurtengoan ere, ildo beretik jarraituz eta hobetzeko bidean aldaketa txiki batzuk eginez, Arimen Gaua ospatzera goaz; hilerritik irten eta kalabazek argitzen diguten bidea jarraituko dugu.

Aurtengo Arimen Gaua egosten hasteko garaia dela uste dugu eta horregatik jartzen gara zuekin harremanetan, aurten ere proiektu edo ekimen kolektibo honen parte izatera gonbidatu nahi zaituztegun. Beraz, lehen pausoak ematen hasteko asmoz datorren ekainaren 12an Kultur Elkarteko liburutegian (19:00etan) izango den batzar irekira gonbidatzen zaituztegu. Besterik gabe, bertan elkartuko garelakoan, agur bero bat denoi!

Arimen Gaueko talde eragilea



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maorpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)





Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



ANE BASTIDA

80 urterekin hiltzen direnak gazte hiltzen dira?

Askotan entzuten dugu jaiotze-tasa jaitsi egin dela, gero eta ume gutxiago jaiotzen direla, egoerak horrela jarraituz gero *zahar* gehiegi egongo direla, pentsioa kobratzeko arazoak izango dituztela...

Lehen *zaharra* hitzak ez zeukan konnotazio txarrik euskaraz; azken batean, denbora pasatzea saihestezina izanik, hobeto onartzen zen zahartzaroa. Orain, alabaina, gazte itxura mantendu nahian, tratamendu bereziak, liftingak eta horrelakoak eginez, laurogei urterekin hiltzen direnak *gazte* hiltzen dira?

Umeak dituztenei laguntzak eman arren, momentuz ez dira nahikoak arazoari aurre egiteko. Azken urteotan gizartea aldatu da. Lehen jendeak zoriontsu bizitzeko gutxiago behar zuela zirudien; halaber, gu baino hobeto bizi ziren. Egungo gizarteak, berriz, dirua barra-barra gastatuz, biharamunik egongo ez balitz bezala, *carpe diem* horretan bizitzea nahiago du oro har. Ni ere bat nator horrekin, gure eskuetan dagoena baino gehiago gastatuz edo hilabete bukaerara ezin iritsiz estu eta larri bukatzen ez badugu.

Litekeena da hor ez aurkitzea beti arazoen irtenbidea; are gutxiago zoriontasuna. Buruhaustea hor hasten da, haurra izatean "horrela bizitzea pentsatzen al duzu?" galdetzen dizutenean ala umeari zer gerta ere aintzat hartuz, bizimodua aldatu behar izatean. Emakumeon kasuan, ama izan aurretik ondo pentsatu behar izaten dugu, urte asko lanean eman ondoren lanpostua galtzeko arriskua izan dezakegulako. Hala ere, esango nuke zerbaitetan aurrera egin dugula. Izan ere, lehengo emakumeek ezkontzen zirenean gehienbat haurrez erditzea pentsatzen zuten bitartean, guk aukera dezakegu umerik eduki nahi dugun ala ez, nola, noiz eta abar. Horrela izatea gustatuko litzaiguke behintzat, ezta?

"Azken urteotan gizartea aldatu da. Lehen jendeak zoriontsu bizitzeko gutxiago behar zuela zirudien; halaber, gu baino hobeto bizi ziren"

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronikak
Maxpe kalea, 7 - beheja | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com



ieraenea
akademikoa

"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Tel: 913 53 95 20- E-mail: ieraeneda@gmail.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



**ELGOIBAR
BHI**

Artistiko musikala
Osasun-zientziak
Zientifiko-teknikoa
Humanitateak
Gizarte zientziak

**2025-2026
ikasturtea**

**Batxilergoko
matrikulazio epea:
ekainaren
16tik 30era arte**



☎ 943 89 93 16

🌐 www.elgoibarbhi.eus

✉ 013431aa@hezkuntza.net



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



ANTTON AIZPURUA

Hitzek biluzten gaituzte

Esatea zaila da. Esateko zer esan nahi den jakin behar delako lehenengo eta esan nahi den hori ganoraz esaten asmatu behar delako gero. Esatea zaila da. Esan nahi dena nola entzungo duten jakin behar delako lehenengo eta jarrera horri egokitu behar zaiolako esango dena gero. Esatea zaila da.

Pentsatzen dut zailtasunak muturren aurrean beti topatuko dituela bi jarrera. Zaila izanagatik ondo egiten ahaleginduko direnena eta ahalegintzeko galbanaz aldameneko beste bide bat hartuko dutenena. Susmoa hartuta nago hiltun alferregiak bihurtu ez ote garen. Hitzek potentzialtasuna aprobetxatzeko ahalegin gutxiegi egiten ez ote dugun eta ez ahalegintze horrek ez ote dakarren diogunaren zehaztasun maila gutxiagotzea edo ia erabat galtzea. Izan liteke bestela, alferrak izan gabe beldurtiak eta koldarrak gara akaso. Zenbat eta zehatzagoak izateak esan nahi dena hobeto hautatzea lekarkeelako, hausnarketa gehiago bezala, hautu gehiago egin behar izatea, eta horrek, ahalegin gehiago eskatzeaz gain, agerian uzten gaitu, biluzik.

Esatea zaila da, silaba bakarrak guztia alda dezakeelako, formaz antzekoa izanagatik, "behar duzunean" esatea edo "behar nauzunean" esatea ez delako gauza bera esatea.

Esatea zaila da, baina hitzak egon badaude; hautatzeko ahaleginik egiteko gogorik eta ausardiarik badugun edo ez dugun ez dakit.

"Esatea zaila da, baina hitzak egon badaude; hautatzeko ahaleginik egiteko gogorik eta ausardiarik badugun edo ez dugun ez dakit"



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia – Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Egitarau zabalarekin ospatuko dute aurtengo Debadaba Festa



Ekainaren 6an eta 7an ospatuko da surfa, kirola, aisialdia eta kultura uztartzen dituen Debadaba jaialdia. Aurreko edizioetan bezala, ekintza sorta zabala antolatu dute Zurrumbilo Ur Kirol Elkarteak eta Yako eta Ipar surf eskolek elkarlanean, baina bada aldaketarik oraintsu aurkeztu duten egitarauan.

Antolatzaileek azaldu dutenez, adibidez, Arbaso entrenamendu saioa helduentzat izango da aurtten eta surf hastapen ikastaroa ez da soilik emakumeentzat izango, "gizonek ere parte hartu ahal izango dute, edo nork izan dezan surfa probatzeko aukera".

Zortzi jarduera

Ekainaren 6an, 14:00etan abiatuko da jaialdia, Gaztelekuko kideek hondartzan egingo dituzten jolasekin. 17:00etan, 18 urtetik gorakoei zuzendutako Arbaso entrenamendu saioa izango da, hondartzan bertan. Ordu eta leku berean, oreka eta *slackline* tailerra egingo dute. Eta 20:00etan Txalainak-en kontzertu akustikoa izango da Ondargain tabernan.

Biharamunean, 08:00etan ekingo diote jardunaldiari, haurren eta gazteen surf txapelketarekin. Artisauen azoka izango da 10:00etatik 15:00etara, hondartzako pasealekuan, eta helduei zuzendutako surf hastapen ikastaroa emango dute 11:00etan. Festa biribiltzeko, poteo musikatua egingo dute herrian, 19:30etik aurrera.

Gogorarazi dutenez, jarduera batzuetan parte hartzeko beharrezkoa da aldeztu aurretik izena ematea; turismo bulegoan, Yako surf eskolan, Ipar surf & skate eskolan eta kiroldegian dago horretarako aukera.

Ekainaren 14an izango da Kulunkaren ikasturte amaierako jaialdia



Kulunka dantza taldeko ikasleek ikasturte amaierako emanaldi berezia eskainiko dute ekainaren 14an, Aldats pilotalekuan. Alaitz Izaga taldeko zuzendari eta irakasleak adierazi duenez, ikuskizuna 22:00etan hasiko da eta ordu eta laurden inguru iraungo du.

Adin tarte guztietako 100 dantzarik parte hartuko dute emanaldian eta guztira 23 koreografia original aurkeztuko dituzte. Tartean izango dira, besteak beste, dantza klasikoak, garaikideak eta neoklasikoak, baita jazz estiloko piezak ere.

Estreinaldiak ere egingo diete lekua. Izan ere, Andrea Aldalur debarrak berak sortutako lan berri bat taularatu du. Izagak zehaztu bezala, "Aldalur gure eskolako ikaslea izan da txikitatik. Dantza ikasketak egin ditu Gasteizen eta Berlingo DART dantza konpainian onartu dute orain; urtebete egingo du bertan. Harro gaude ikasle bat maila horretara iritsi dela ikusteaz eta bere lana herriarrei aurkezteko gogoz gaude".

Sarrerak

Emanaldirako sarrerak ekainaren 9an jarriko dituzte eskuragarri turismo bulegoan, 4 euroren truke. "Sarrerarik geratzen bada, egunean bertan pilotalekuko atean ere izango ditugu salgai", gaineratu dute antolatzaileek.

Kulunka taldeko kideek jaialdira bertaratzeko deia egin diete herriarrei, beste behin ere. Nabarmendu dutenez, "lan handia egin dugu aurtten ere ikuskizuna antolatzen eta ilusionatuta gaude, bai dantzariak, bai irakasleak. Beraz, gonbidatuta zaudete gure lana ikustera eta dantzaz gozatzeraz".



EIDER ALDALUR

Argi ilunak

Klik. Dena itzali da. Etengailuari gorantz eta beherantz eragin diot. Ezer ez. Berriz ere gorantz eta beherantz eragin diot eta oraingoan ere ezer ez. Argirik ez. Lanparari begira geratu naiz. Sarrerako atearen ondoan dagoen koadro elektrikoan begiratu dut eta etengailu guztiak goian daude. Harritzekoa!

Ordenagailua, routerra, telebista eta hozkailua itzali zaizkit. Bazkaria prestatu ezinik geratu naiz eta hozkailuko azken soberakin hotzak jan behar izan ditut, mikrouhinak elektrizitaterik gabe ez baitira oraindik transmititzen. Pena bat! Komunera joatea ere abentura bihurtu zait, komunean leihorik ez duten guztiei bezalaxe, eta zer egin jakin ezinda geratu naiz. Iluntasuna nagusitu da.

Itzalaldiak honela harrapatu ote ninduen ez duzue jakingo. Zuen irudimenaren esku utziko dut, baina egia izan ala ez, errealitatea izan zitekeen. Elektrizitatearekiko guztiz menpekoak garela bagenekien eta argi geratu zaigu. Argirik gabe dena geratu da.

Gertatutakoaren arrazoi argirik oraindik ez dakigu eta ez dut uste jakingo dugunik ere, urte batzuk pasa arte. Elektrizitatearen negozioak jarraitu egin behar du, urteroko milioi askoko mozkin astronomikoekin eta argindar sare zaharkituarekin. Noski, gizarteak hain beharrezkoa duen hornigai bat saltzen gutxi batzuen poltsikoak era pribatuan goraino betetzen dituen sistema bat nola aldatuko da ba? Agian gure bizimoldea birpentsa dezakegu. Baratzea etxe ondoan izan banu, astelehen hartan hozkailuan ez nituen letxuga eta tomateak bilduko nituzkeen bazkaltzeko. Entsalada eder bat, aizu!

"Elektrizitatearekiko guztiz menpekoak garela bagenekien eta argi geratu zaigu. Argirik gabe dena geratu da"

**ASA ASESORIA
ARIN**

M. Belen Arrue Lizarralde
Abokatua

Zestoa
Gesalaga kalea, 22 behe
943 89 70 99

Zumaia
P. Etkezaretza, 15 behe
943 11 71 55

Lege zerga, kontabilitate, merkataritza eta lan aholkularitza
Enpresak / Autonomoak
Finken administrazioa, jabeen erkidegoak eta higiezin kudeaketa
asesoriarin@asesoriarin.com

Taxi Alain
Zure zerbitzurik onena



636 135 008 • www.taxideba.eus

Festa giroan ospatu dute Debarren Eguna

Egun nagusia maiatzaren 18a, igandea, izan zen arren, asteburu osoko egitaraua izan du aurten ere Debarren Egunak. Ohiko osagaiak izan ditu ospakizunak eta aukeran izan dira, besteak beste, barrakak, haurrentzako paella eta margo lehiaketak, musika emanaldiak, sokatira txapelketa, zezenak, euskal dantzak edota erraldoien konpartsen desfilea eta alardea. Herria festa giroan murgilduta egon da hiru egunez, argazkietan ikus daitekeen bezala.



Argazki gehiago
berriketan.eus atarian



92 ikaslek parte hartu zuten paella lehiaketan.



Kalean Kantuz taldeko kideak Foruen Plazan.



Debako gaiteroak kalez kale Debarren Egunaren bezperan.



Entzierro jendetsua egin zuten gurdiekin hilaren 17an.



Amaiak Bateko nagusien taldea igoera herritarrekin ospatzen.



Debarren Eguneko ezpata-dantza San Roke ermitan.



Gure Kai dantza taldearen aureskua Foruen Plazan.



Mutriku Sokatira Taldea zumardian jokaturako txapelketan.



Erraldioen konpartsen desfile koloretsua.



Eguraldia lagun, jende andana hurbildu zen plazako ikuskizunera.



Saregilea

Arg.: NEREA BEDIA LAUNETA

Argazki hau Ondarroako portuan aterata dago. Lehen planoan arrantzale bat azaltzen da sarea konpontzen. Halako irudiak ohikoak ziren sasoi batean, baina gero eta gutxiagotan ikusten dira gaur egun, pixkanaka desagertzen ari den ofizioa baita saregileena. Ondarroan, adibidez, dagoeneko ez da emakumezko saregile profesionalik geratzen.



Euskararen erabilera "erdigunean"

Maiatzaren 25ean amaitu zen laugarren Euskaraldia, hizkuntza ohiturak euskarara gerturatzeko 11 eguneko ariketa praktikoa. Eta ekimena bukatu eta biharamunean, lehenengo balorazio bat egin zuten koordinazio mahaiko eragileek. Irakurketa positiboa izan da oro har eta jakinarazi dute ia 135.000 lagunuen izen-emateak jaso dituztela.

Zehaztu dutenez, aurtengo Euskaraldian "inoiz baino herri gehiago" aritu dira antolaketa lanetan. Guztira 450 herri izan dira ariketa soziala aurrera eramateko lan egin dutenak. Emaiza "benetan pozgarria" dela azpimarratu dute, "horrek esan nahi baitu inoiz baino herri gehiagotan piztu dela ariketaren beharraren ideia eta hori antolatatzeko

ilusioa". Halaber, entitateen parte-hartzea nabarmendu dute, kasu horretan ere inoiz baino handiagoa izan baita kopurua: 7.500 entitatek hartu dute parte ariketan. Horiek horrela, Euskaraldiak "euskararen erabilera erdigunean" jarri duela azaldu du koordinazio mahaia. Behin betiko datuen faltan, egitasmoa "eraginkorra" izan dela diote, kalean "nahi baino txapa gutxiago" ikusi dituzten arren.

Deban eta Itziazarren ere gogoeta positiboa egin dute batzordekideek. Parte-hartze kopurua berdintsua izan da: 670 lagunek parte hartu dute Euskaraldian. Urtaro aldaketa ere "oso ondo" baloratu dute, "udaberriak kalean ekintza gehiago antolatzeke aukera eman baitigu, ikusgarritasuna handituz".



Herritarrak Euskaraldiko txapak jasotzen.



Batukada maiatzaren 10ean egindako azokan.



Ekimenari hasiera emateko talde argazkia Foruen Plazan.



Kalean Kantuz maiatzaren 10ean egindako azokan.



Bastiñuixan jolasak, ipuin kontaketa eta tailerra zumardian.



Iturrian Korua kalez kale.



Kuadrillen arteko jolasen finala Debarren Egunaren bezperan.



Luzaro ikastetxean egindako irrintzi ikastaroa.



Barreteria stand up probalekua Kultur Elkarte.



Euskaraldia agurtzeko talde argazkia Plaza Zaharrean.

Poesiaz, umorez eta jolasez betea dator aurtengo Antzerki Astea



Goaz Antzerki Taldeko kideak aurtengo jaialdiaren kartela eskuetan dutela.



GOAZ

Antzerki Taldea

Maiatzaren 30etik ekainaren 8ra bitartean egingo dute euskal antzerkiaren erakusleihen jaialdia, Goaz taldearen ekimenez. Programazioan askotariko lanak biltzen saiatu dira aurtun ere eta guztira bederatzi ikuskizun izango dira Deban eta Itziarren; horietatik bi amateurak. Bada berritasunik, gainera; antzerki tailerra ere txertatu baitute egitarauan.

Berriki aurkeztu du Goazek 38. Antzerki Astearen egitaraua, "beti bezala, azken momentukoak azken momentuan lotzen eta presatzen" aritu ondoren. Eta taldekideak "gustura" daude emaitzarekin. "Umorea, poesia eta jolas asko izango ditugu aurtun. Publiko zabalarari zuzendutako antzezlan batzuk egongo dira, baita publiko helduari zuzendutakoak ere. Eta, gainera, gai ezberdinei buruzko lanak ikusteko aukera izango dugu", laburbildu dute.

Guztira bederatzi emanaldi izango dira Debako eta Itziarko espazio ezberdinetan —Ispiluen gelan, Simon Berasaluze plazan, Plaza Zaharrean eta Burugorriin—; tartean izango dira Txalo-Talo eta Karrika talde amateurren lanak ere. Bestalde, iazko esperientziarekin pozik, Gozatuz egitasmoko antzerki ikastaroko ikasleek ere berriz parte hartuko dute jaialdian, bi lan taularatuz. Aurtun bi talde osatu dituzte eta 21 ikasle aritu dira ikastaroan. "Goazen helburuetako bat antzerkizaleatasuna sustatzea da eta polita da belaunaldi gazteenak ere Antzerki Astera hurbiltzea", adierazi dute.

Antzerki tailerra

Berritasun nagusien artean, Mayi Martiarena debarrak gidatuko duen antzerki tailerra nabarmendu dute: "Antzerkizaleengana hurbiltzeko beste modu bat izan daitekeela uste dugu, ikusle izatea ez baita antzerkiaz gozatzeko modu bakarra". Eginda dago, hortaz, gonbidapena: "Mayik gorputza eta objektua abiapuntu hartzea proposatu du eta Goazeko kideei oso ondo etorriko zaigu lanketa hori egitea. Baina ez da guretzat bakarrik antolatutako tailerra; edonor etor daiteke, esperientziarekin edo gabe, eta gustura ikusten ditugu aurpegi berriak". Parte hartzeko, aurrez eman beharko da izena.

Maiatzak 30, ostirala | 19:00
Simon Berasaluze plaza

> Troia

Kamikaz kolektiboa (Azpeitia)
Kale antzerkia • Doan

Herrian objektu misteriotso bat agertu da. Arriskutsua izan daitekeelakoan, hiru superheroi hauei deitu diete herria salba dezaten. Beren botere guztiak erabiliko dituzte misioa aurrera eramateko eta ezinbestekoa izango dute herritarren laguntza. Herrian sortu den tentsioa handia da eta edozein momentutan egin dezake eztanda.



Maiatzak 31, larunbata | 19:00
Ispiluen gela

> Hurrengo geltokia

Karrika antzerki taldea (Durango) • Sarrera 6€

Karrika antzerki taldeak bere *opera magna* izango den ikuskizunaren *working progress*-a aurkeztuko du. Tentuz, mimoz, astiro-astiro dabilta lanean "jo eta fuego", beren barruak oholtza gainean azaleratzeko eta beren barneko kezak eta desirak plazaratzeko asmotan. "Ez galdu tren! Mundiala izango da! Erraldoia!", aurreratu dute taldekideek.

Ekainak 1, igandea | 19:00
Ispiluen gela

> Heriotzak Eduardo du izena

Formol Laborategia (Lasarte) • Sarrera 6€

Mezu bat iritsi da kontrolera. Poema bat dela uste dugu. Kanpoan itsaso zuria eta Eduardo besterik ez dira geratzen. Suntsipen orokorra. Barruko iluntasunean egin dezakegun gauza bakarra izarrak izatera jolastea da. Argi txikiak gara, pauso ahalketiz. Agurrak, poesia eta 'musikita'. Munduko Poesia Kaierak bildumaren 10. urteurrena ospatzeko Formol Laborategiak sortutako poesia ez-errezitaldia duzue honakoa; "Biziei ere omen".



Ekainak 3, asteartea | 18:00 eta 19:00 | Ispiluen gela

Gozatuz ikastaroko umeak (Deba) • Doan

> Kafe odoltsua

Kafearen hondarrek Juanaren heriotza ekarri dute. Errudun posible asko, Juana erailtzeko motibo anitz. Izango al da publikoa gertatutakoa argitzeko gai?

> Hau bai bogabantea

Futbol partida beldurgarri bat? Beherapen izugarriak? Eskola ikaragarria? Ala botika mardarikatua? Bogabante batek gidatuko gaitu ikarak baino barreak nagusituko diren antzerki espantagarri zein xeble honetan.



Ekainak 5, osteguna | 10:30

Itziariko Burugorri

> Eskola baldarra

Aizarnako herri eskola • Doan

Luzaroko ikasleentzat

Malenek ez du bere eskola atsegin eta beste mota bateko eskola nahi luke izan bereztat. Baina bizitzak opari bat egingo dio orduan, eskola ezberdin batera joateko aukera izango baitu. Dena dela, guztia esan dioten bezalakoa izango ote da?

Ekainak 6, ostirala | 19:00

Plaza Zaharra

> Azkena eta bagoaz!

Trapu Zaharra (Donostia)

Kale antzerkia • Doan

Kale antzerkiko aktore batek ordu txikietan Areto Antzokian zortea probatzea erabaki du. Bere helburua lortzeko, antzerki klasikoko aktore batekin elkartuko da eta obra berri bat prestatuko du: *Bost ordu Mario gabe*. Dirua biltzeko helburuz, bere lehengo konpainiarekin egindako plazak zeharkatuko ditu.



Ekainak 7-8, larunbata-igandea
10:00-13:00 | Ispiluen gela

> Gorputzak eta objektuak

Mayi Martiarena Litago • Tripak kolektiboa
Antzerki tailerra • Doan

Tailer honek gorputza eta objektua izango ditu abiapuntu: bi hizkuntza, bi material eta bien arteko elkarrizketa. Gorputza espazioan eta beste gorputzekin harremanetan jarriko dute partaideek eta objektuak gorpuztuko dituzte. Jolaserako lagunak izango dira eta eszena sortzeko elementu gisa erabiliko dituzte.

Izen-ematea: goazantzerkitaldea@gmail.com
helbidera idatzita edo [labur.eus/goazantzerkias-
tea](http://labur.eus/goazantzerkias-
tea) estekan.



Ekainak 7, larunbata | 19:00 | Ispiluen gela

> Kutsidazu bidea Ixabel

Txalo-Talo antzerki taldea (Berrobi) • Sarrera 6€

Gazte donostiar batek uda baserri batean pasatzea erabaki du bere euskara maila hobetzeko asmoz, baina bertan baserriaren egunerokotasunari eta hizkuntza arazoei egin beharko die aurre.

Ekainak 8, igandea | 19:00 | Itziarko Burugorri

> Udaberri azidoa

Makur (Gasteiz) • Doan

Udaberria heldu da. Zein da bi egun bizi dituen izaki baten filosofia? Intsektuak eraldatzen dira, baina matxina daitezke? Bi xomororen komeriak bizitzaren birjaiotze basatiaren zurrunbiloan barrena. Kolorez betetako sarbide-erritua.



SARRERAK INTERNET BIDEZ EROSTEKO AUKERA

Urtero bezala, emanaldi bakoitza hasi aurretik sarrerak aretoan bertan izango dira salgai. Aurrez eskuratu nahi dituztenek Internet bidez erosteko aukera ere izango dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Ondo-rengo estekan eros daitezke: www.labur.eus/GoazAntzerkiAstea





Mikel Iñiguez (Elgoibar, 1991) Odontologian lizentziatua da. Madrilgo Alfonso X El Sabio Unibertsitatean egin zituen lehenengo bi mailak eta EHUn azken hiru urteak. Etengabeko formakuntzan aritu da unibertsitate ikasketak amaitu zituenetik eta, besteak beste, 2 urteko graduondokoa egin zuen Leongo Unibertsitatean, Aho Kirurgia, Inplantologia eta Periodontzia ikasten. 2014an hasi zen lanean eta hamar urteko lan esperientziak emandako eskarmentua oinarri hartuta zabaldu du hortz klinika Elgoibarren.



“Aho tratamendu integrala eta pertsonalizatua eskaintzen dugu, punta-puntako teknologiarekin”

Zertan dago espezializatua zure klinika?

Oinarrizko odontologiaz gain, inplantologia, periodontzia eta aho kirurgia egiten ditugu batez ere. Gure paziente guztiak modu integralean tratatzen ditugu, espezialitate guztiak batzen dituen ikuspegi orokor batekin. Hemen dena egiten dugu, tratamenduaren hasieratik amaierara arte. Pazienteari jarraipen osoa pertsona berak egiteko aukera ematen du horrek, kasu honetan, nik neuk, eta konfiantza horrek lasaitasuna eskaintzen du. Ortodontzia eta endodontzia egitera beste bi espezialista etortzen dira.

2015ean hasi zinen lanean Donostian eta orain Elgoibarren zabaldu duzu klinika. Nolakoa harrera egin dizu zure herriak?

Donostiako klinikan hasi nintzen arrebarekin eta orain herrira itzultzea erabaki dut. Nire amak lokal hau zeukan Elgoibarren, amonaren arropa-denda izan zen urte askoan, eta orain nire klinika hemen zabaltzea aukera polita izan da. Profesionalki ondo prestatuta nago, hamar urteko esperientzia daukat eta segurtasun osoz egiten dut lan. Beraz, lasai etorri naiz eta oso ondo hartu naute. Nire lana atsegin dut eta etengabe ari naiz gauza berriak ikasten.

Digitalizazioak zein abantaila ekarri ditu odontologian?

Azken hiru urteetan dena modu digitalean egiten dugu. Pazienteek, lehenengo txandatik, euren aho berreraiketa 3D formatuan ikusteko aukera dute. Horrek pazientearekin dugun komunikazioa asko erraztu du. Hasieratik ikusi daiteke ahoa zer egoeratan dagoen, baita tratamenduaren ostean nola geratuko den ere. Alor guztietan abantaila ugari ekarri ditu. Tratamenduak arinagoak dira; ez dira lehen bezain luzeak. Punta-puntako teknologia erabiltzen dugu eta digitalizazioari esker aho tratamendu integrala eta pertsonalizatua eskaini dezakegu. Aho bakoitza mundu bat da, behar desberdinak ditu, baina gaur egun ia denetik egin daiteke.

Jende askok dentistarengana joateko beldurra dauka. Zer esango zenieke?

Lasai etortzeko. Gaur egungo teknika eta teknologiarekin ez da minik sentitzen. Hala ere, dentistari izua diotenentzako edo antsietatea duten pertsonentzako sedazio kontzientearen aukera ere badaukagu. Pazienteek ez dute ezer sentitzen. Gehienetan lo hartzen dute eta ez dute gogoratzen zer gertatu den prozesuan zehar. Esperientzia oso positiboa izaten da.



616 680 311

Kalebarren plaza 4W, behea
20870 Elgoibar

www.iniguezdentalstudio.com

[iniguez_dentalstudio](https://www.instagram.com/iniguez_dentalstudio)

“Ficobako ekitaldi bakoitza proiektu berezi bat da, bere estrategia, helburu eta publikoarekin”

MAIALEN GAZTAÑAGA • Ficobako azoka eta kongresuen zuzendaria



Maialen Gaztañaga (Deba, 1979) 2008an hasi zen Ficoba Gipuzkoako Erakustazokan lanean. Komertzial lanak egin zituen hasieran, baina 2020az geroztik Ficobako azoka eta kongresuen zuzendarietako bat da. Gaur egun Bioterra, Be Veggie eta Ababor azoka ezagunak antolatzeaz arduratzen da, besteak beste.

Frantses Filologian lizentziatua da, baina Gaztañagaren orain arteko ibilbide profesionala "ez da humanistikoa bakarrik izan". Donostian bizi da eta azken hamazazpi urteotan Ficoban dihardu, gaur-gaurkoz azoka eta kongresuen zuzendari lanetan. Aitortu duenez, gogoko du bere lanbidea; "gustura eta harro nago egiten dugun lanaz", azpimarratu du. Berak zuzentzen duen Bioterra azokaren bezperetan, bere zereginez, sektoreko erronkez eta beste hainbat kontuz galdezka joan zaio *Berriketan*.

Hamazazpi urte daramatzazu Ficoban lanean. Nola iritsi zinen bertara?

Nazioarteko esparruan esperientzia lortu ostean iritsi nintzen Ficobara. Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze bekari esker eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren kanpo-merkataritzako beste beka bati esker hainbat tokitan lan egiteko aukera izan nuen. Esperientzia horiek nire profila zabaltzen lagundu zidaten. **Zein ikasketa edo ibilbide izan duzu aurretik gaur egungo lanpostuan aritu ahal izateko?**

Frantses Filologian lizentziatua naiz, baina nire ibilbidea ez da humanistikoa bakarrik izan. Nazioartekotzean eta kanpo-merkataritzan espezializatzeo beka eta prestakuntza horiei esker, sektore anitzetan aritzeko gaitasuna garatu nuen. Gainera, sei hizkun-



Arg.: HUGO IGLESÍAS



“Hamazazpi urte hauetan asko ikasi dut, erronka asko izan ditut eta talde bikain batekin lan egiteko aukera izan dut”

“Nire ametsa Ficoba berrikuntzaren eta jasangarritasunaren eredu izatea da. Ikasten eta garatzen jarraitzea da nire helburua”

tzatan moldatzen naiz: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, italiera eta portugesa. Horri esker, hainbat diziplinatan lan egin ahal izan dut, beti ikuspegi estrategiko eta komunikatibo batetik.

Gaur-gaurkoz, azoka eta kongresuen zuzendaria zara. Zertan datza zure lana zehazki?

Nire lanaren ardatza Ficobako azokak eta kongresuak diseinatzea, koordinatzea eta garatzea da. Talde lana ezinbestekoa da: erakusketariekin harremanak, programazioaren edukia, komunikazioa, logistikaren antolaketak eta babesleen kudeaketa ere nire ardurapean daude. Ekitaldi bakoitza proiektu berezi bat da, bere estrategia, helburu eta publikoarekin.

Zein da zure erronkarik edo motibaziorik handiena egunerokotasunean?

Erronka nagusia egitasmo bakoitza eraginkortasunez gauzatzea da, baina nire motibazio nagusia eragina da: proiektu bakoitzak komunitateari, ekonomiari eta jasangarritasunari egiten dion ekarpena. Gure lanak tokiko ehun ekonomikoa indartzen du eta, askotan, pertsonen kontzientziazioan ere eragiten du.

Laster (ekainaren 6tik 8ra) egingo den Bioterra azoka zuzentzeaz arduratzen zara, besteak beste. Nola bizi dituzu aurreko egunak?

Bizitasunez eta ardura handiz bizi ditut, azken aste-

tan tentsioa eta emozioa areagotzen dira... Xehetasun guztiak zaindu behar ditugu erakusketarien, bisitarien eta guztion esperientzia onena izan dadin. Halako azoka batek presio handia sortzen du, baina emaitza ikusita benetan merezi du.

Bisitari kopuru mardula izaten duzue beti. Oraingoan ere horrela izatea espero duzue?

Bai, iaz 10.000 bisitari baino gehiago izan genituen eta aurtun joera horri eustea espero dugu. Publikoak gero eta interes handiagoa du kontsumo arduratsu eta ekologikoarekiko eta horrek Bioterra indartzen jarraitzen du.

Estatu mailan sektoreko azoka erreferenteetako bat izatera iritsi da Bioterra. Hori lortzea ez zen erraza izango, ezta?

Ez, ez da batere erraza izan. Bioterra apalki hasi zen, baina 21 urtez egindako lana, erakusketarien konfiantza eta publikoaren leialtasuna funtsezkoak izan dira. Talde oso baten lan konstantea, ideien etengabeko berrikuntza eta sektorearekiko konpromiso sendoa behar dira horrelako posizio bat lortzeko.

Bioterraz gain, abenduan egiten den Be Veggie eta aisialdiko nautikarekin eta uretako jarduerekin lotutako Ababor azoka antolatzeaz ere arduratzen zara. Be Veggie eta Ababor bezalako ekimenek gure jardura-



Arg.: HUGO IGLESIAS

na dibertsifikatzeko aukera ematen digute. Be Veggie elikadura beganoaren eta bizi estilo osasuntsuaren inguruan aritzen da, eta bisitari gazteak eta konprometituak erakartzen ditu. Ababor-ek, berriz, aisialdiko nautikan eta uretako jardueretan jartzen du arreta. Bi ekimenek publiko eta erakusketari oso ezberdina erakartzen dute eta horrek oso aberasgarri egiten du antolakuntza esperientzia.

Orain artean azokak aipatu ditugu, baina Ficoba erakustazoka bat baino gehiago da, bestelako ekintza edo jarduera batzuk ere egiten baitituzue...

Bai, Ficoba ez da azoketarako azpiegitura bat soilik. Urtean zehar kongresuak, jardunaldi profesionalak eta ekitaldi sozialak ere hartzen ditugu, baita kultur programazio zabala ere. Era berean, enpresei eta erakundeei espazio malguak eta profesionalak eskaintzen dizkiegu beraiei jarduerak garatzeko.

Idea bat egiteko, aipa ditzagun datu batzuk. Adibidez, urtean zenbat bisitari edo ekimen hartzen dituzue? Nolakoa da balantzea?

Urtero 100.000 bat bisitarik eta 200 ekitaldi inguruk betetzen dute Ficoba. Iaz, adibidez, 145.000 bisitari eta 285 ekitaldi izan genituen. Gure inpaktu ekonomikoa ere nabarmena da Bidasoa eskualdean: ostatu, gastronomia eta tokiko enpresa sarearengan eragin

positiboa du eta, aldi berean, marka baten posizionamendua indartzen du.

Zure ustez, zer garrantzi du Ficoba bezalako erakustazoka batek Gipuzkoan? Eta Euskal Herrian, oro har?

Ficobak mugaz gaindiko elkarlan ekonomikoa eta soziala garatzeko aukera ematen du, Bidasoa eskualdeko dinamizatzailerik gisa. Gipuzkoarentzat estrategikoa da eta Euskal Herri osoarentzat erakusleiko garrantzitsua, bere aniztasun sektorialagatik eta jasangarritasunaren aldeko apustuagatik.

Zer eman dizu bertan lan egiteak? Zer moduzko esperientzia ari da izaten zuretzat? Gustura al zaude?

Oso esperientzia aberasgarria izaten ari da eta bete-betea profesionalki. Hamazazpi urte hauetan asko ikasi dut, erronka asko izan ditut eta talde bikain batekin lan egiteko aukera izan dut. Gustura eta harro nago egiten dugun lanaz.

Zer erronka edo amets ditu Maialenek aurrera begira? Etorkizunean ere Ficoban ikusten al duzu zure burua?

Nire ametsa Ficoba berrikuntzaren eta jasangarritasunaren eredu izatea da. Ikasten eta garatzen jarraitzea da nire helburua. Ingurune aldakor honetan, funtsezkoa da egokitzea, baina balore eta helburu argiekin beti: komunitateari ekarpena egitea eta ingurumenarekiko konpromisoan aurrera egitea.

Autoak agintzen du

Mugikortasunari buruzko txostena argitaratu du Saretzenek, EITBk eta Tokikom tokiko komunikabideen sareak elkarlanean gauzatzen duten proiektuak, eta ondorioa argia da: trantsizio berderako bideak grisa izaten jarraitzen duela. Hau da, autoa dela, oraindik orain, garraio biderik erabiliena.

SARETZEN

Egunero milioika joan-etorri egiten dira eta kopurua hazten ari da gainera, gero eta gehiago mugitzen garelako. Hala erakusten dute Eusko Jaurlaritzaren azken Mugikortasun Inkestako datuek (2021). 6,5 milioi desplazamendu gertatzen dira aste barruan egunero-egunero Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian; horietatik %45 oinez, %33 autoz eta %15 garraio publikoan. Hiri eta eskualde guztiak ez daude, baina, berdin diseinatuta eta horrek, hiri-antolaketak, garraio publikoaren erabilgarritasunak eta ibilgailu pribatuen nagusitasunak baldintzatzen dituzte gure mugikortasun-ohiturak.

Nolanahi ere, autoa da garraio bideetan errege Hego Euskal Herriko eguneroko joan-etorrietan, eta 2007tik autoen salmenta-kopuruan gorabeherak izan badira ere, 2023tik hona matrikulazioek etengabe egin dute gora Hego Euskal Herri osoan (10 ibilgailu partikularretik zazpi autoak dira); azken urtean, %5,6 EAEn eta %2,1 Nafarroan. Debarrenera etorrira, 2023an, 44.321 ibilgailuko parkea genuen, 2019an baino 381 ibilgailu pribatu gehiagorekin. Eskualdeko herri handietan (Eibar, Ermua, Elgoibar) eta Soraluzen txikitu egin da ibilgailu-parkea lau urtean, pittin bat bada ere; gainontzeko herrietan, aldiz, handitu, hurrenkera honetan: Mutrikun (+271), Deban (+234), Mallabian (+103) eta Mendaron (+55).



Datuak argiak dira eta, beraz, erronka handia dugu trantsizio berderako bidean. Hala uste du Ander Gortazar arkitekto eta EHUKo Hirigintza eta Lurralde-antolaketa Saileko irakasleak, mugikortasunari buruz Saretzenek kaleratu duen txosteneko datuei begira jarrita. Mugikortasuna eta hirigintza ia gauza bera dira nabarmendu du; batetik beste baldintzatzen duela, eta alderantziz. Haren esanetan, dispersio geografikoa, zaharkitutako ohiturak eta eredu jasangarriaren premia eta eguneroko joan-etorriak uztartzeko modua topatzea da Euskal Herriko erronka nagusietako bat.

Mugikortasunaren datu orokorrak

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban desplazamendurik ohikoena oinez egiten da, norbere udalerriaren barruan; oro har, eguneroko joan-etorrien %45 oinez egiten dira eta zenbateko hori are handiagoa da emakumeen (%51) eta 65 urtetik gorakoen artean (%72). Bestalde, auto pribatua da nagusi lan egiteko adinean daudenen artean: 20 eta 64 urte bitartekoen ia erdiek aukeratzten dute bere ibilgailua aukera nagusi gisa eguneroko joan-etorriak egiteko. Garraio publikoaren kuota handiena, berriz, gazteenei dagokie (%23).

Mugitzeko motibazio nagusien artean, aldiz, esan behar da lanegatik (%29,9) edo ikasketengatik (%12) egiten dela joan-etorrien kopuru handiena (%42).

Debabarreneko ibilgailu-parkea 2023an eta 2019arekiko desberdintasuna

	Ziklomotorrak		Motozikletak		Turismoak		Furgonetak		Kamioiak		GUZTIRA	
	2019	2023	2019	2023	2019	2023	2019	2023	2019	2023	2019	2023
Deba	68	+3	236	+34	2.831	+211	286	+27	351	-57	3.913	+234
Eibar	380	-36	1.256	+141	11.701	-264	780	+18	803	-93	15.342	-187
Elgoibar	138	-16	454	+49	5.287	-24	453	+30	502	-32	7.101	-10
Ermua	244	-18	651	+39	6.880	-56	341	+52	537	-74	8.831	-20
Mallabia	27	-1	89	+16	823	+37	153	+30	206	-8	1.391	+103
Mendaro	18	-2	88	+22	918	+12	67	-3	68	+4	1.221	+55
Mutriku	129	+8	330	+97	2.584	+136	183	+26	239	-6	3.577	+271
Soraluze	81	-5	142	+16	1.929	-81	157	+5	160	-35	2.564	-65
GUZTIRA	1.085	-67	3.246	+414	32.953	-29	2.420	+185	2.866	-301	43.940	+381

ITURRIA: SARETZEN

Erosketa edo gestioetarako egiten dira desplazamenduak %29, eta %22 aisialdiagatik. Arlo horretan ere eragina du generoak: gizonak gehiago desplazatzen dira lanagatik (%32), eta emakumeak, berriz, batez ere kudeaketak egiteko (%32,3).

Gortazarrek aipatu bezala, soldatapeko lanarekin lotuta dago, hortaz, mugikortasunaren arazo nagusia. Eta hori zuzenean erlazionatuta dago hiri-diseinuarekin, gaur egun enpresa asko herriguneetatik kanpora eramanda daudelako eta orain herriak ez direlako garai batean bezain dibertsoak, lantegiak ez ezik, denda handiak ere herrigunetik kanpo jarri direlako. Eguneroko behar nagusiak lortzeko gehiegi mugitu behar izateak sortzen ditu, hain zuzen, arazoak. Eta garraio publikoa hobetzeak konpondu ahaliko luke arazoa zenbaitetan, baina ez beti; "ez, bederen, gure herri eta hiriak nola antolatuta dauden birplanteatu ezean", gaineratu du.

Oinezko mugikortasuna eta garraio publikoa

Donostialdean biltzen da Gipuzkoako mugikortasunaren %53, eta Araban, Gasteizen bakarrik egiten dira eskualdeko joan-etorrien %96 eta Araba osokoen %82. Datu horiek biztanleriaren banaketari eta zerbitzu-jardueren kontzentrazioari erantzuten diete, eta lotura zuzena dute garraio publikoaren eskaintzarekin eta garraio publikoan egiten diren bidaiei kopuruarekin.

Gipuzkoan, biztanleria banatuago dago eta mugikortasun dibertsifikatuagoa du. Egutero 312 bidaia egiten dira garraio publikoan 1.000 biztanleko. Bidaia horien %36 Donostian bakarrik egiten dira eta %64 Gipuzkoako gainontzeko herrien artean. Arazo handiak daude eskualde arteko loturetan eta horrek berarekin dakar ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna.

Autoa jaun eta jabe

EAEn, Gipuzkoan erabiltzen da auto pribatua gehien (%44), eta Araba (%43) eta Bizkaia (%33) ditu atzetik; Nafarroan ere, eskala berean banatutako daturik izan ez arren, autoa da garraiobiderik erabiliena. Eta gero eta turismo gehiago daude gainera. Gure eskualdea ez da salbuespena. 2019an baino 381 ibilgailu pribatu gehiagorekin zeuden matrikulatuta 2023an, gehienak autoak. Eta deigarriak dira Debako datuak: 5.393 bizilagunen artean 4.593 ziren 18 urtetik gorakoak, hau da, gidabaimena izan zezaketenak eta 4.147 ibilgailu pribatu zeuden 2023an, horietatik 3.042 turismoak. Lau urteko epean %7,45eko hazkundea izan zen (211 turismo gehiago).

Aparkatzea arazo bihurtu da herri gehienetan; urte osoan ez bada, bai behintzat urteko sasoi jakin batzuetan. Eta, aldi berean, oinezkoei lekua jan diete autoek. Gortazarrek esan bezala, denboraren %95 gelditu egiten dute kotxeek, espazio publikoa okupatzen askotan.

“Eztabaida serioa behar da espazio publikoaren erabileraren inguruan”

ANDER GORTAZAR • Arkitektoa eta EHuko irakaslea



"Mugikortasunak hirigintza baldintzatzen du eta alderantziz". Hala dio Ander Gortazar arkitektoak (Donostia, 1985). EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Hirigintza eta Lurralde-antolaketa Saileko irakaslea da eta 2021ean Elhuyar Sorkuntza Beka Saria jaso zuen, 15 minutuko hiria, 45 minutuko lurraldea. Euskal kartografia garaikideak izeneko lanarengatik. **Testua: Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria-Saretzen**

Hitz egin al daiteke mugikortasun-hirigintza eredu on eta txarrez?

Badira eredu onak eta txarrak. Askotan aipatzen da gure helburua ez dela horrenbeste mugitzea, baizik eta zerbitzu batzuetara iristea; horrenbestez, mugikortasunik onena batzuetan gertatzen ez dena da. Eguneroko behar nagusiak lortzeko gehiegi mugitu behar izanez gero, ez da positiboa; gehiegi mugitu behar horretan hasten gara ondorio negatiboak pairatzen.

Halabeharrez mugitu behar dira batzuk, baina lurralde historikoak ezberdinak dira euren artean...

Lurralde antolakuntzak erabat baldintzatzen du mugikortasuna. Araban, adibidez, Gasteizek biztanleriaren %90 inguru biltzen du eta errazagoa da mugikortasuna hiri baten parametroetatik ulertzea; aldiz, Gipuzkoan biztanleria sakabanatuago dago, herri txikiagoetan. Ikusten duguna da eguneroko mugimenduak -lanarekin lotuta bereziki, baina ez bakarrik- ez direla soilik herri barrukoak, baizik eta herrien artekoak. Eta horietan distantzia batzuk daude, fluxu batzuk, eta horiei modu jasangarrian erantzutea oso zaila da.

Nolakoak dira fluxu horiek tokiaren arabera?

Gipuzkoan, bailara barruan dezente mugitzen gara, baina baita batetik bestera ere, eta ez soilik herrietatik herrietara, baizik eta herrietatik herrien inguruan dauden bestelako industrialdeetara, supermerkatuetara... Mugikortasunaren dispersio horrek asko zailtzen du hori dena modu erraz batean antolatzea.



Hiriak oinez mugitzeko prestatuta al daude?

Hiri barruan mugitzea gero eta errazagoa da. Nire us-tez, arazo nagusia egun soldatapeko lanarekin dago lotuta. Lantoki asko hiriaren kanpoaldera eraman ditugu, lurra merkeagoa delako, adibidez. Enpresari hobeto irteten zaio urruti joatea, baina langileari ez. Eta gauza bera gertatzen da herrietan ere. Lehen herriak askoz ere dibertsoagoak ziren: industria kutsatzailea zenean, hiri barruan zegoen, eta orain, kutsatzaileak ez direnean, hiritik kanpo jartzen ditugu.

Garraio publikoa sustatzea izan al daiteke horri aurre egiteko modu bat?

Bai, erabat. Garraio publikoak izan behar du mugikortasunaren bizkarrezurra, baina garraio publikoak



ondo funtziona dezan behar du maiztasuna, pertsona fluxu bat... Eta mugikortasun beharrak izugarri dispersatu baditugu, oso zaila da egoera horri garraio publikoaren bidez erantzutea, ez bada garraio publikoa bera pentsatzeko modua ere apur bat aldatzen dugula. **Lurraldebusek inoiz baino erabiltzaile gehiago izan zituen iaz. Datu adierazgarria al da hori?**

Uste dut ari garela pixkanaka kontzientziatzen, baina azken urteetan garraio publikoak izan duen igoera merkeagoa izatearekin estuki lotuta dagoela uste dut. Prezioa berriro ere aurrekoetara itzultzen bada, hor gertatuko dena ez dago batere garbi.

Ia bi milioi ibilgailu daude Hego Euskal Herrian eta %70 inguru turismoak dira. Beharrezkoak al dira?

Kotxea, eta hau gutxitan esaten da, ez da makina batere eraginkorra. Kotxe batek bere denboraren %95 aparkatuta pasatzen du, bi tonako tramankulu bat behar dugu 80 kiloko pertsona bat mugitzeko... Efizientzia energetikoaren aldetik, ez da jasangarria.

Zein da konponbidea aparkaleku beharra izan arren horiek egiteko tokirik ez duen herri baten kasuan?

Berez, aparkalekuaren lehenengo arazoa kudeaketarena da. Herrietako alkateek esan izan didate kazkabarra iragartzen dutenean, bat-batean kalean tokia izaten dela gauze aparkatzeko. Horrek esan nahi du jende askok baduela garajea, baina ez duela erabiltzen kalean uztea erosoagoa delako. Hor badago kudeaketa arazo bat eta osagai nagusia prezioa da. Eta ez da ba-

“Kotxe batek bere denboraren %95 aparkatuta pasatzen du, bi tonako tramankulu bat behar dugu 80 kiloko pertsona bat mugitzeko... ez da jasangarria”

tere herrikoia era honetan esatea, baina aparkatzeak espazio bat okupatzen du elementu pribatibo baten-tzat, eta, alde horretatik, logikoa da ordaintzea, beste gauza askorengatik ordaintzen dugun eran. Horrek gauzak berrantolatzen lagundu dezake.

Elhuyar Sorkuntza Beka Saria jaso zenuen '15 minutuko hiria, 45 minutuko lurraldea. Euskal kartografia garaikideak' lanarengatik. Zer dira hamabost minutuko hiriak?

Hamabost minutuko hiria, berez, Parisetik etorri zen ideia bat izan zen. Carlos Moreno aholkulari urbanistikoak eta Anne Hidalgo alkateak sustatu zuten ideia bat da, eta esan nahi du hiritar moduan, oinez edo bizikletaz, hamabost minutuan iritsi beharko ginatkeela gure behar nagusiak asetzerara. Ideia oso ona iruditzen zait, baina oso argi dut Parisetik datorrela eta hango testuinguruari erantzuten diola.

Ekar al daiteke ona?

Gure herrietan eta hirietan hamabost minutuko erradio horretan gauza asko egin ditzakegu, uste duguna baino askoz gehiago, eta askotan ez ditugu egiten; halere, badira beste behar batzuk asetzen oso zailak direnak, lehen aipatu bezala, adibidez, soldatapeko lanarena.

Gauzak hobetzeko zer aukera ikusten dituzu?

Nire ustez, batetik, badago garraio publikoa hobetzeko aukera; inbertsio berarekin gauzak hobeto egin daitezkeela uste dut. Bestetik, badira esku-hartze oso taktikoak, ez direnak benetan garestiak, baina politikoki zailak direnak...

Nik uste dut txip aldaketa bat beharrezkoa dela ba-koitzarengan, baina egia da batzuetan alternatibak ere falta zaizkigula, eta alternatibak bilatzeko ezin ditugula beti gauzak lehen egiten genituen eran egin. Adibidez, garraio publikoari dagokionez, oso argi dut birpentsatu egin behar dugula diru horrekin eta gehiagorekin zer egin daitekeen hobeto aprobetxatzeko. Horrez gain, eztabaida serio bat behar da espazioaren erabileraren inguruan: oso barneratuta dugu, baina kotxeek espazio publikoan duten nagusitasuna metro koadrotan izugarria da, eta hori ezbaian jartzen hasten garen momentuan gauza asko etor daitezke atzetik.

Maiatza / Ekaina

MAI. 23- EKA. 1

GEOPARKEEN ASTEA
Informazioa: geoparkea.eus

MAI. 30 (OSTIRALA)

BASTIÑUIXAN
16:30 Zumardia.

ELKARRETARATZEA
19:30 Euskal presoen eskubideen alde. Foruen Plaza.

MAI. 30-EKA. 8

ANTZERKI ASTEA
Egitaraua 16-19 orrialdeetan.

MAI. 30-EKA. 1

CAPOEIRA TOPAKETA
Senzala Euskadiren eskutik.

EKA. 1 (IGANDEA)

HERRILIBRE BAT (GUREESKU)
11:00 Irteera Itziartik eta Debatik Santa Katalinara.

ZINEMA
19:00 'El monje y el rifle'. Kultur Elkartea.

EKA. 2 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA
12:00 Foruen Plaza.

EKA. 6-7

DEBADABA FESTA
Informazio guztia ale honetako 8. orrialdean.

EKA. 7 (LARUNBATA)

MERKATU TXIKIA
09:00 Estalitako pasealekua.

EKA. 8 (IGANDEA)

ANDUTZ EGUNA
11:00 Salda eta txorizoa. Ondoren, sari banaketa. Andutz magala.

OMENALDIA ETA BAZKARIA
80 urtetik gorako bazkideei. Arbil Elkarteko Soziala.

ZINEMA
19:00 'America fiction'. Kultur Elkartea.

EKA. 10 (ASTEARTEA)

HITZALDIA
18:30 'Iruña-Veleia: aztarnategi eta auzi baten historia'. Hizlaria: Josetxo Mendia. Kultur Elkartea.

EKA. 12 (OSTEGUNA)

BILERA IREKIA
19:00 Arimen Gauda prestatzeko batzarra. Kultur Elkarteko liburutegia.

EKA. 13 (OSTIRALA)

SASIOLARA IBILALDIA
10:30 Irteera oinez Paseo estalia.
11:30 Meza eta, ondoren, hamaiketakoa. Sasiola.

EKA. 14 (LARUNBATA)

KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEAREN EGUNA
12:00 Ostolaza Sarien banaketa. Ondoren, bazkaria. Kultur Elkartea.
20:00 Kontzertua: Bidelapurak.

DANTZA JAIALDIA
22:00 Kulunka taldearen eskutik. Aldats pilotalekua.

EKA. 15 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA
08:00 Brinkola-Biozkornia-Arantzazu. Pasealeku estalia.

ZINEMA
19:00 'Matronas'. Kultur Elkartea.

EKA. 16 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA
12:00 Foruen Plaza.

EKA. 20 (OSTIRALA)

MUSIKA JAIALDIA
21:30 Musika eskolako ikasleen eskutik. Zumardia.

EKA. 21 (LARUNBATA)

URTEKO BATZARRA
11:30 Amaiak Bat. Kultur Elkartea. Ondoren, bazkaria.

KALEAN KANTUZ
13:00 Foruen Plaza.

EKA. 22 (IGANDEA)

HARLEY-DAVIDSON TOPAKETA
10:45 Irteera kiosko paretik. Eguerdian sardina jana eta musika zuzenean (Azkaite Pelox). Zumardia.

ZINEMA
19:00 'El conde de montecristo'. Kultur Elkartea.

EKA. 23 (ASTELEHENA)

SAN JOAN BEZPERA
22:00 Foruen Plaza.

EKA. 24 (ASTEARTEA)

SAN JOAN EGUNA
11:00 Santa Katalina.

ERAKUSKETAK

Gozatuz-eko ikasleen lanak
Maiatzak 31. Plaza Zaharra.

Artelanak (Haitz-Haundi)
Ekainaren 1era arte. Udaletxea.

Argazkiak: 'Edoskitze naturala'
Ekainak 6-8. Udaletxea.



ZAINTZAKO BOTIKA Egunez (09:00-22:00)

ZALDUEGI
Ekainak 13, 14, 15, 20, 21, 22.

BURGOA
Maiatzak 30, 31 eta ekainak 1, 6, 7, 8, 27.

Larunbat goizetan beti bat irekita (09:30-13:00)

BURGOA Ekainak 7, 28.
ZALDUEGI Ekainak 14, 21.

OHIKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera
(09:00-13:45 / 16:30-19:30)

Guardia egunetako igandeak
eta jaiegunak (11:00-13:00)

Itziariko botikina (09:00-12:30)

BURGOA 667 33 88 90
ZALDUEGI 669 26 22 01



Eskelak



Hildakoen eskelak, urteurrenak eta oroigarriak argitaratzen dira atal honetan. Horieta bat jarri nahi izanez gero, 632 04 33 22 telefonora deitu edo idatzi berriketan@berriketan.eus helbidera.

Eskela guztiak berriketan.eus/eskelak estekan egongo dira ikusgai.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberrria.com
www.funerariaetxeberrria.com

943 741 327 (24 orduz) / 635 756 295 / 629 635 203

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Eriete zentruetan zerbitzuak.

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Itziarko Botikina	687 75 67 21	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Debako Udala	943 19 28 40	Gurutze Gorria	943 19 10 32	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Mendata BHI	943 89 92 65
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Deba Musikal	943 19 20 16
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Turismo bulegoa	943 19 24 52	Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Mankomunitatea	943 70 07 99	KZgunea	943 02 36 29
Kiroldegia	943 19 22 62	Haurreskola	943 19 20 81	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55	Euskotren	944 33 33 33
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54	Lurraldebus	900 30 03 40



Deba

Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
 20820 Deba, Gipuzkoa
info@debaklinika.com
 T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
 Kirurgia
 Implanteak
 Ortodontzia tradizionala
 Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
 Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.






**PILARIK GABEKO
 AUDIFONOAK**
 PROBATU
 HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
 20820 Deba
 Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12


PIRAMIDE MATEMATIKOA



Nola jolastu?

Denbora-pasa matematiko honetan piramideko bloke huts guztiak bete beharko dituzu, goiko blokearen barruan dagoen zenbakia azpiko bi zenbakien batura dela kontuan hartuta. Zorte on!

Erantzuna:



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 beheko - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

Berriketan.eus

parte hartu
parte izan

KUTXA FUNDAZIOA

LAGUNTZA DEIALDI BEREZIA

Gipuzkoa Aliantzan 2025

www.kutxafundazioa.eus



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00

F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia & Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ez. Eibar

943 20 72 17 | 660 42 28 08

amaia@esnaolaodontologia.com

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Mikel
ITURGINTZA

- GASA
 - BEROKUNTZA
 - ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behe,
20820 Deba

T. 943 191 774

M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus



Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH
SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

Uztailleko ikastaroak:

First / Advanced
DBHko eta Batxilergoko
errefortzua

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206

info@english-square.net



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



www.antxustegi.com



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMIKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PARERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692